

## ZESUMA



### Jose Luis Etxeberria Xapreri jasotakoak (Berria, 08-02-29)

Xaprerren ibilbidea ondoen deskribatzen duten hainbat terminoren bueltan esandakoak bildu ditugu atal honetan:

#### SOINU-JOTZEA ETA PARRANDA:

“Niri festa gustatzen zaidanarekin ze aitzakia polita den festan ibiltzeko. Gure munduan, gainera, orduan soinuarekin edozein lekutan sartzen zinen, ezagutu gabe ere”.

#### LAGUNARTEA:

“Ni soinujole izatea koadrilari zor diot, eta panderistei ere bai. Zarra, Furri, eta anaia, iloba... Norabaitera joan behar eta beti dispuesto. Ingurukoekin sekulako zortea eduki dut”.

#### EGUNGO IBILERA:

“Soinuarekin bai, gutxiago. Normala da, aizu. Lehenagoko behar hori ez dago. Eta, gainera, izanez gero fenomeno bat, baina ni bezalako txatarrero bat... Esan nion lagunari behin, «hi, 40 urtetik gora eta utzi beharko diogu horrela ibiltzeari». «Amurizak esaten dik txapuzeroak beti beharko direla», erantzun zidan. «A, orduan segi egin beharko diagu». «Higatik segitzen diat soinujotzen», eta barre egiten zuen Amurizak kontatzen nionean”.

#### TELEBISTAN:

“Lehenago *Kareletik* filmean egon nintzen, baita Gernikako bonbardaketari buruzko dokumental batean ere. Han ere zorte ona izan nuen: jende askok gerra denborako garaiak egin behar izan zituen. Niri jaunartze, bataio eta bodak ospatzea soinuekin. Garai hartako boda bat zelebrazten egin genituen bi egun Petrigitin. Han ere jan eta edan”.

## KALEJIRAN

• Francesc Marimon soinu diatoniko irakasle katalanak 50 piezaz osatutako bilduma plazaratu du. Pieza hauek **Carles Beldak** jo ditu, eta 2 CDtan daude grabatuta. **Zailtasun-maila aintzat hartuta** ordenatu du errepertorioa, eta pieza bakoitzak sarrera moduko bat du. Horretaz gain, nota bakoitza zein behatzekin jo adierazita ageri da partituretan.

• **Soinu diatonikoari buruzko honako ikastaro hauek** daude hitzartuta:

- Apirilak 5-6: Nanterre (Frantzia)
- Abuztuak 17-23: Doucy-Combeluvière, Savoie (Frantzia)
- Abuztuak 25-29: Bellver de Cerdanya (Herrialde katalanak)

Irakasleen zein matrikulatzeko argibideen berri nahi izanez gero, jo [trikitixa.net](http://trikitixa.net) helbidera.

## GALBAHEA

### Gose:

“Orain dela asko esan zuen Ruper Ordorikak Gasteizen kontzertu batean, eta arrazoia dauka: arriskatzea, zerbait aldatzea beti da gozamen. Hori da aurrera egiteko modua, tradizioa apurtzea. (...) Guk saltzea baino, bat baino gehiago harrituta uztea lortu dugu, trikitiarekin halako gauzak egiten. Izan ere, trikitiaren booma gertatu zenean poparekin egin zuten, baina aspalditik beste buelta bat behar zuen”.

(Argia, 2.126. znb. 2008-III-2)

# ALTZA PORRU!

2008ko martxo / 28.zenbakia

EHTE Allemendi 1, 20800 ZARAUTZ - Tel.: 943 83 28 28  
[www.trikitixa.net](http://www.trikitixa.net) / [www.trikimailua.com](http://www.trikimailua.com)



Euskal Herriko  
Trikitixa Elkartea  
L.G. : SS-418/01

## SAN JOSETAKO JAIALDIA

Trikitixa indartu eta hedatzeko asmoz, urtero egiten den emanaldia da **Azpeitiko ekitaldi** hau. **Euskal Herriko Trikitixa Elkartea** eta **Azpeitiko Udala** dira antolatzaile. Gainera, jaialdi hau antolatzeko, Urola aldean lan talde bat jarri da martxan.

**Martxoaren 16an, igandea, bost eta erdietatik aurrera** gozatu ahal izango da jaialdi honetaz, eta **sarrerak** Azpeitiko Pastorkuan, Meolan eta Azkoitiko Ixidro Erretegian jarriko dira salgai, **12 euroren truke**.

Aurten 6 talde izango dira Izarraitz pilotalekuan, eta bertara hurbildutakoak dantzan jartzeko prest irtengo dira oholtza gainera. Hauexek dira parte hartuko duten taldeak:

- **Kupela taldea eta Furundarena**
- **Allur anaiak**
- **Eneko Etxabe eta Oihana Irastorza**
- **Maixa, Ines eta Maite**
- **Koldo Iturbe, Xabi Aburruzaga eta Joseba Urrutia**
- **Tapia eta Leturia**



Aristerrazu omenduko da aurten



2007ko San Jose Trikiti jaialdiaren amaiera

## BATZAR NAGUSIAREN

Otsailaren 23an egin zen batzar nagusia Aian, eta bertan, batetik, 2007ko egitasmoen **balantzea** egin zen, eta, bestetik, 2008rako **aurreikusten diren egitasmoen** berri eman zen. Guztira 30 bat lagun bildu ziren. Batzarra bukatu ondoren, kalejira egin zen eta bazkal ondorenean ere ez zen soinu faltarik izan. Batzar Nagusia Elkarateak urtean zehar egindako lanen erakustaldia da eta elkarteko bazkide direnek hortxe dute hitza.

Hasteko, **Zuzendaritza Batzordearen errepasoa** egin zen eta **Iker Goenaga** proposatu zen bokal modura hasteko. Zuzendaritza Batzordea astean behin elkartzen da. Batzorde honen jiran erabakitzen dira elkartearen nondik norakoak, egitasmoak eta astean asteko zereginak. Honako hauek dira batzordekideak:

**LEHENDAKARIA:** Alaitz Telletxea

**DIRUZAINA:** Juanjo Manterola

**IDAZKARIA:** Agurtzane Aizpuru

**BOKALAK:** Joseba Tapia, Mikel Markez eta Iker Goenaga

Elkartearen dinamikari dagokionez, **talde eragile** bat biltzen da bi hilean behin, elkartearen berri jasotzeko. Talde horren hurrengo **bilera apirilaren 8an** izango da, iluntzeko



Hona hemen batzar nagusira bildutakoak

bederatzietan, Zarautzen. Bilera hauek irekiak dira, beraz, gogoia duen edonor hurbil daiteke.

Bestalde, Elkarteko **trikitixa.net webguneko agenda** ahalik eta osatuena izan dadin, **Elkarateak deia** egiten die emanaldiak, erromeriak edo kontzertuak ematen dituzten **trikitilari**ei euren **agendak bidaltzeko**, eta, hala, euren ekitaldien berri eman ahal izango da.

## 2008RAKO AURREIKUSTEN DIREN EGITASMOAK

Aurtengo egitasmoen harian, batetik, **aurreko urteetako ekimen gehienek jarraipena** izango dute, eta, bestetik, ekimen berriek ere hartuko dute lekua. Hala, hainbat lan adostu dira 2008. urterako.



faborez 01 diskoaren partiturak aterako dira

Jardunaldietako lehenengo liburua

### LIBURUA BERRIAK

- **PARTITURA LIBURUA, FABOREZ 1** diskoko partiturak bilduko ditu liburua. **Xabi Aburruzaga** eta **Jon Ostolazak** transkribatu dituzte piezak.
- **2005, 2006 eta 2007ko jardunaldietako materiala** biltzen duen liburua. Azken hiru edizioetako hitzaldi eta pasarte interesgarrienak biltzen dituen liburua hau bazkideei doan bidaliko zaie aurtun. **2005. urtean kopl**a izan zen jardunaldietako ardatz, **2006. urtean Elgeta** trikitilaria eta **2007. urtean txapelketen gaia** berreskuratzeak harrotu zituen hautsak.

### DISKO BERRIAK

- **Faborez II diskoa:** Faborez bildumari segida emango zaio, eta ildo bereko bigarren diskoa uda baino lehen atera nahi da.

### DOKUMENTAZIO-LANA

- Dokumentazioaren alorrean, **argazkiak eta audioa** landu nahi dira bereziki, eta, ildo honetan, prentsako urteko bilketa, katalogazioa eta sareratzeko lana egin segidan.

### IRAKASKUNTZA-ARLOA

- Urtean zehar **Gipuzkoako trikitixa-irakasleekin** bildu nahi da bailaraka, jasotako errolda-datuaren ondorioak aztertuz,

elkartearen eta irakasleen harremana behingoz bultzatzeko. Pixkanaka, errolda beste probintzietan ere egingo da.

### KANPORA BEGIRAKO LANA:

- **Hitzaldiak**  
**Inpernuko Poza Jardunaldiak** irailaren 10etik 12ra egingo dira **Donostian**. Aurtengo ardatz nagusia: **TEKNOLOGIA BERRIAK**. Irailaren 10ean **Xabi Erkizaren** hitzaldia izango da Udal Liburutegiko sotoan, irailaren 11n **Mikel F. Krutzagaren** hitzaldia entzun ahal izango dugu leku berean eta azken egunean **saio praktikoa** egingo da **Victoria Eugeniako Klub aretoan**. Tartean izango dira **Javi P3z** eta **Carles Belda**.
- **Nazioarteko Trikitixa Jaialdia**  
**Nazioarteko Trikitixa Jaialdia** azaroaren 22an izango da Donostiako **Victoria Eugenia Antzokian**. Aurtun lekuz aldatzea pentsatu da, eta trikitixak Kursaalgo ganbera aretotik Victoria Eugeniara egingo du salto.
- **Durangoko Azoka**  
Durangoko Azokan stand-a jarriko da, urteroko legez. Hitzordu ezinhobea da egindako lanak plazaratu eta harremanak sakontzeko.

Javi P3z eta Xabi Erkizia izango dira aurtengo jardunaldietan besteak beste



## FABOREZ II-ko partaideek ekin diote lanari

Faborez bildumari segida eman nahian, Faborez bildumako bigarren alean parte hartuko duten trikitilariak hasiak dira lanean. Honako trikitilari hauek entzun ahal izango dira:

- **Urtzi Enrikez eta Gorane Sagasti**
- **Laja II eta Narbaiza**
- **Baltzola Anaia**
- **Gari Lizarraga eta Iñaki Larrañaga**

**Errepertorio tradizionala** bildu nahian, bigarren alea ikusiko du udan Faborez II bildumak. Oraingoan beste **20 pieza** grabatuko dira, **sultoko piezak** eta **lotukoak**, tartean.

Uda aurretik atera nahi dute diskoa, eta, denborak hala behartuta, ekin diote dagoeneko lanari. Grabazioa **Jabi Nabarro** zuzentzen duen Amoroetako **Musikorta Estudioetan** egingo da, apirilean eta maiatzean, eta soinu-teknikaria ere **Jabi Nabarro** bera izango da.



Gari Lizarraga eta Iñaki Larrañaga izango dira Fabore II-ko bikote bat, argazkian 2003ko Nazioarteko Trikitixa Jaialdian

## Disko berria




### Kupela: PAGOTXA

**Erromeria giroko taldea** dugu **KUPELA (Zabale, Larrañaga eta Berastegi)**, zuzenean zein disko-lanetan zapore eta grazia berezia jartzen asmatu baitute orain arte. Disko honetan publiko zabalarengana iritsi nahi dute. Alde batetik, alaitasun motiboak erruz sortzen dituzte, eta, bestetik, trikitixaren ahalaria aire freskoak eta berrizaleak ekartzen dizkiote, Elkar argitaletxearen ustez.

“Kupela” abesti ezagunaren **aldaera dantzagarri bat** ere aurkeztuko dute diskoaren osagarri gisa, Kaki Arkarazoren eskutik. Bideoklipa ere gehitu diote azken bertsio honi.

konposatutako **14 kanta berri** aurkezten dira lan honetan, munduari begira landutakoak, askeak, gaur egungoak, baina berezko identitateari eta sustraiei eutsiz. Esan bezala, ohiko umore puntua ez zaio falta hirukote honen azken disko bizi honi ere.

## Liburu berria



### Jabier Kalzakorta: DANTZA-KOPLA ZAHARRAK

Jabier Kalzakorta filologo eta irakasleak **Dantza-Kopla Zaharrak** izeneko liburua argitaratu du. Koplei buruzko oso material interesgarria biltzen da bertan. **Tradizio zaharreko koplak** dira, **dantzarako kantatzen zirenak**. Egileak hainbat koplak aurkitu ditu, batzuk lehendik argitaratuak eta besteak argitaratu gabekoak.

Hainbat lekutako errepertorioak bildu ditu. Hauek lekuak, hurrenez hurren: Arantzazu, Arratia, Ataun, Eibar, Ereño, Galdakao, Gernika, Irun, Mañaria, Markina, Nafarroa, Ondarroa, Lekeitio, Bergara eta Zeberio. Liburuaren azkenaldia, Manuel Lekuonaren bilduma ere ekarri du gogora, eta azkenik, han-hemengo lan monografikoetan ageri diren koplak ere bildu ditu. Horretaz gain, Labayru Ikastegiko artxiboan ageri den Bizkaiko antologia eta koplak asmatuak ere topa daitezke liburu honetan. Benetan, liburu mardula eta interesgarria.